

Enpresen lasterketa



Gasteizko alde zaharra eta oinezkoentzako guneak
Iraila/ Urria

5km-ko lasterketa bat baino zerbait gehiago!

Lan-zentro berean egon ohi diren pertsonen artean loturak sendotzeko tresna bikaina da kirola. Bi, hiru edo lau taldeetan, langileek haien enpresen izenean aritzeko aukera izango dute Gasteizko hirigune historikoa zeharkatuko duen kirol proba honetan.

Taldeak gizonezkoenak, emakumezkoenak edo mistoak izan daitezke. Kategoria bakoitzeko lehenengo bi sailkatuek saria jasoko dute, bai eta parte-hartze handiena daukaten enpresek ere.

Informazioa

Urtero lasterketa bat egiten da urrian. Hau ez da ohiko herri lasterketa bat, haien enpresak ordezkatzan dituzten bi, **hiru edo lau lagunez osatutako taldeen arteko norgehiagoka bat baizik**, eta enpresa bakoitzak, gainera, nahi adina talde aurkez ditzake.

Parte-hartzaileen artean jarrera osasuntsua sustatzea eta kirol-jarduera langileentzako topagune bihurtzea da **Enpresen Lasterketaren** helburua. Horrez gain, talde-izpiritua sustatzeko, talde bereko korrikalariek elkarrekin irten, korrika egin eta helmugaratu beharko dute.

5 kilometroko ibilbidea Gasteizko alde zaharretik eta oinezkoentzako guneetatik igaroko da oso-osorik.